



## Datu ekonomikoak

### Ekoizpenaren bilakaera


Getariako txakolinaren ekoizpenak hazkunde nabaria izan du azkenengo urteotan, bai inskribatutako azalerari dagokionez, baita jarduera horretara dedikatutako txakoligileei dagokienez ere. Horrela, 2007-2008 kanpainan 255 Ha inskribatuta zeuden, zortzi urte arinago produktu honi dedikatutako lurraldearen ia bikoitza dena. Txakoligileen kopuruari begira, gorakada oso antzekoa eman da, eta enpresa elaboratzaileen zenbatekoa 18tik 22ra igaro zen 2009ko hasieran.

### Getariako txakolinaren upategien eta txakoligileen kopuruaren bilakaera 1994-2008 epean

Uztaren urtea	Upategi txakoligileen kopurua	Txakoligileen kopurua	Kanpaina amaieran inskribatutako azalera (Ha)
2000/2001	17	39	147
2001/2002	17	53	177
2002/2003	17	59	177
2003/2004	17	56	220
2004/2005	17	57	220
2005/2006	17	60	227
2006/2007	17	61	227
2007/2008	18(*)	70	255

(\*) 2009ko amaieran 22 upategi elaboratzaile ziren guztira.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.

Ekoiztutako txakolinaren bolumenaren bikakaerari dagokionez, ekoizpenaren hazkundera hain jarraitua eta izugarria izan da, ezen hirukoiztu egin baita, hain zuzen ere, 1997-1998 kanpainako 5.300 hektolitrotik 2007-2008 kanpainako 13.587 hektolitrorra igaro da.



### Getariako Txakolinaren bolumenaren bilakaera inskribatutako azaleraren gainean 1997-2008 epean.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.

Produktu honen barne komertzializazioak lortutako balio ekonomikoaren garrantziari dagokionez, aipatu beharra dago ekoizpen bolumenaren antzeko garapen jarraitua gertatu dela. Atal honetan azpimarratu behar da 2000-2008 epean kanpo merkataritza laukotu egin dela, esportatutako 208.182 hektolitrotik 482.500 hektolitrorara pasatuz.

### Getariako txakolinaren merkataritzaren balio ekonomikoaren bilakaera 2003-2008 epean (€)

	Barne merkataritza	Kanpo merkataritza	Guztirako merkataritza
<b>2000/2001</b>	2.704.554	108.182	2.812.737
<b>2001/2002</b>	3.300.000	120.000	3.420.000
<b>2002/2003</b>	3.115.000	195.000	3.310.000
<b>2003/2004</b>	4.474.360	218.000	4.692.360
<b>2004/2005</b>	5.700.000	(*)	(*)
<b>2005/2006</b>	6.797.000	341.990	7.138.990
<b>2006/2007</b>	7.700.000	414.000	8.114.000
<b>2007/2008</b>	6.340.000	482.500	6.822.500

(\*) Kanpaina honetako kanpo merkataritzari dagozkion datu ekonomikorik ez dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.



Merkaturatutako ardo motari dagokionez, aipatu beharra dago ardo zurien nagusitasuna jarraitua eta erabatekoa dela, bai barnealden, zein kanpoaldean. Azken 2007-2008 kanpainan ardo gorrien. beltzen eta berezien merkaturatzea hasi da, barne komertzializazioaren eremura mugatuta badago ere.

### Getariako txakolinaren komertzializazio bolumenaren bilakaera ardo motaren arabera banatuta 2000-2008 epean (HI)


		00/01	01/02	02/03	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08
<b>Barne merkataritza</b>	<b>Zuriak</b>	6.814	7.900	7.305	10.169	12.238	14.549	16.515	13.504
	<b>Gorriak</b>								54
	<b>Beltzak</b>						16		13
	<b>Bereziak</b>								39
<b>Osoko barne merkataritza</b>		6.814	7.900	7.305	10.169	12.238	14.565	16.515	13.610
<b>Kanpo merkataritza</b>	<b>Zuriak</b>	226	249	402	385	501	563	691	801
	<b>Gorriak</b>								-
	<b>Beltzak</b>								-
	<b>Bereziak</b>								-
<b>Osoko kanpo merkataritza</b>		226	249	402	385	501	563	691	801
<b>OSOKO MERKATARITZA</b>		7.040	8.149	7.707	10.554	12.739	15.128	17.206	14.411

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008

Kanpoan merkaturatutako Getariako Txakolinaren banaketari dagokionez, azpimagarria da amerikar kontinenteko salmenten nagusitasuna. Azkenengo kanpaina aztertuan, kasu, esportazio guztien erdia baino gehiago dira. Europako Batasunera egiten diren esportazioak bigarren tokian daude, eta Asiako salmentek garrantzi txikiagoa daukate. 2000-2001 kanpainatik izandako kanpo salmenten bilakaerak Amerikako eta EBko salmenten hazkunde jarraitua azaltzen du eta, neurri txikiago batean, Asiakoena.


**Getariako txakolinaren kanpo merkataritzaren bolumen bilakaera kontinenteen arabera banatuta 2003-2008 epean (HI)**

	EB	EB ez den Europa	Amerika	Asia	Ozeania	Guztira
2000/2001	132	4	90			226
2001/2002	145	1	103			249
2002/2003	165		237			402
2003/2004	174	1	200		10	385
2004/2005	209	9	283			501
2005/2006	205	1	341	16		563
2006/2007	287	2	359	43		691
2007/2008	296		463	42		801

**Getariako txakolinaren kanpo merkataritzaren bolumena kontinenteen arabera banatuta 2007-2008 kanpainan (HI)**


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008